

**Herri programa**

***Arrasate***

***2023-2027***

**ehbildu**



## **Herritarrengandik gertu egongo den gobernantza eredia**

Herritik eta herritarrengandik gertu egongo den gobernantza eredia garatzeko aurkezten gara Udal Hauteskundeetara. Horretarako Arrasateko Udaleko ateak herritar, eragile, zein askotariko erakundeei zabalduko dizkiegu. Eskuz-esku lan egin nahi dugu, eta herritarrak barne hartzen dituzten erabakiguneak eraiki nahi ditugu: Auzo Batzordeak berreskuratu, Udal Eskola Kontseilua martxan jarri, prebentzio eta esku-hartze komunitariorako elkarlan mahaia eratu, Nagusien Kontseilua sortu, herritarren parte hartzerako baliabideak bideratu...

Gizarte konplexuetan bizi gara eta erronka sozial handiak ditugu parez-pare: krisi ekosoziala eta energetikoa, migrazioen areagotzea, populazioaren zahartzea, globalizazio digitala, landa eremuaren despopulazioa, etab. Garai zailak baina aldi berean aukerez beteak bizitzea egokitu zaigu. Hori dela eta, komunitategintza indartsu baten aldeko apustu sendoa egiteko unea da, transbertsalitate handiagoarekin lan egin eta kolektibo zein behar desberdinak harremanetan jartzera konprometitzen gara.

Herritar guztientzako bizitza duinak bermatu eta erronka berriei soluzio berriei erantzuneko dien eskaintza da EH Bildurena. Zentzu horretan, Arrasate erreferente izatea nahi dugu.

Erreferentea bere herritarrak eta zaintzaileak zaintzen. Erreferenteak berdintasunaren eremutik feminismoetara jauzi egin eta LGBT+ ildoan udal politiketan txertatzen. Erreferentea etxebizitza problematikari erantzunak ematen. Erreferentea bazterkeriari aurre egiteko programa sozialen inbertsioa handitzen.

Erreferente euskararen aldeko politiketan. Arrasate euskalduna eta anitza nahi dugu: bere sustraiez harro, euskarari dagokion lekua emango diona eta berriz ere euskalgintzaren kabi izango den Arrasate, horretarako euskararen plan integrala eta ordenantza garatu eta euskara ikasteko doakotasuna bermatuz.

Erreferentea gazteei ahotsa eta garatzeko lekua ematen. Gazteak dira etorkizuna, gazteak dira oraina. Gazteen ongizatea, aisialdia, garapen pertsonal eta profesionalean laguntzeko politikak martxan jartzea ezinbestekoa da.

Erreferentea ingurumenaren eta ondarearen zaintzan. Erronka ekologiko eta klimatikoaren aurrean, udalerrri bezala benetako pausuak emateko garaia da: energia, mugikortasuna edota lehenengo sektorea bezalako eremuak gakoak dira horretarako. Baliabide eta ondare naturalak bezala, historikoak ere, babesteko plan eta neurriak behar ditu. Historiadun herrian, ondareak bizirik jarraitu beharra dauka.

Oinarria badugu, ezinbestekoa da urteetan Arrasaten egindako lana balioan jartzea. Orain, ezberdinen arteko kooperaziotik erreferente izateko jauzia emateko unea da. Lan hau aurrera eramateko Arrasateko Udala funtsezko eragilea izan beharko da, eta EH Bildu beharrezko lidergotza garatzeko prest dago. Egingo dugu.

## **Gobernantza kooperatiboa eta gertukoa**

Botere politikoa banatu, herritarrak ahaldundu eta tokiko politiketan parte aktibo izateko bitartekoak jarriko ditugu Udala herritarrengana gerturatzeko lan egitearekin batera.

- Administrazioa eta herritarrak barne hartzen dituzten erabakiguneak eraikitzea: nagusien kontseilua, auzoetako batzordeak, berdintasun kontseilua...
- Udalean herritarren parte hartzerako baliabideak bideratzea.
- Zerbitzuen bateratzerako herritar txartela (+APP) sortzea (hondakinak, kirol azpiegiturak, liburutegia, ikasteko espazioak, co-working guneak...)
- Udal bitartekaritza zerbitzua sortzea.
- Udaleko atekak zabaltzea eta herritarrak hartzeko ordu tarte publikoa sortzea.

## **Auzogintza: auzotar eta elkarteekin auzo biziak**

Auzoetako ezaugarri eta behar propioei erantzuteko lan egingo dugu.

- Landa auzoetan digitalizazioa eta irisgarritasuna hobetu.
- Udala auzoetara gerturatu: zerbitzuak eta parte hartze bitartekoak eskainiz: Auzo-etxeak, BAZeko zerbitzu mugikorra, auzozainaren figura, auzo bizitzarako topaguneak, kirol ikastaroak eskaintzeko espazioak...
- Auzoetako konexioak eta irisgarritasuna hobetzea: igogailu edo ranpak eraikitzea Gorostiza, Erguin edota Makatzenan, autobus lineen berrikuspena eta hobetzea.
- Auzoetan espazio berdeak sortu edo eta berreskuratu, San Andreseko Doctor Bañez kalea adibidez.
- Gobernantza ereduan auzotarrek auzoko politiketan zuzenean parte hartzeko auzo alkateak funtzioz bete eta Udaleko Auzoetako Batzordea berreskuratu.
- Zahartzaroaren auzoan eta norbere etxean bizitzeko zaintzak bermatu.
- Kultur eskaintza auzoetan urte osoan zehar.

## **Etxebizitza-zerbitzu publikorako bulegoa**

Etxebizitza eskubidea bermatzeko proiektuak garatuko ditugu.

- Etxebizitza-zerbitzu publikorako bulegoa martxan jartzea.
- Etxebizitza parkearen azterketa eta antolaketa egitea.
- Alokairu pribatua arautzea eta alokairu soziala handitzea.
- Gazteei begirako alokairurako diru laguntzak errebisatzea.
- Cohousing proiektu publiko komunitarioa: gazteen emantzipatzeko ezintasuna, eta adineko pertsonen bakardadeari aurre egiteko
- Larrialdi egoerentarako etxebizitza parkea handitzea.
- Birgaitzeko dirulaguntzak.

## **Arrasaten modu erosoan mugitu**

**Azpiegitura berriak eta autobus sare duinak jarriko ditugu martxan.**

- Erguin, Gorostiza edota Makatzena bezalako auzoetan igogailu edo ranpak eraikitzea irisgarriagoak izan daitezen.
- San Andres auzoan Doctor Bañez kalea birmoldatzea.
- Hiri autobus lineen berrikuspena eta herritarren beharretara egokitzea, denon eskura egon daitezen.
- Autobus geltoki duina proiektatu eta herritarren beharretara egokitu.
- Arrasateko bidegorria osatzeko falta diren atalak garatzea: Zerrajera-Zalduspe-Musakola eta Gelma-Musakola.
- Bizikletentzako aterpeak jartzea herrian zehar. Horretarako baliagarriak izan daitezkeen lokal hutsak aztertzea.
- Aparkaleku disuasorioen azterketa eta proposamena, erdiguneko trafikoa arindu eta Arrasatera lanera edo ikastera datozei aparkatzeko erraztasunak eskaintzeko.
- Mugikortasun jasangarria sustatzeko kanpaina bateratua erakunde eta enpresekin. Neurri zehatzen artean autobus lineak antolatzea, lanera bizikletan joateko erraztasunak eskaintzea, auto partekatuaren sustapena, ...

## **Kirol Herria: kiroldegitik, kirolaren herrira**

**Jasangarria, konektatua, inklusiboa eta egingarria.**

- Kiroldegi berri eta duina Musakolan: funtzionala eta zentzuduna, epe ertainera egin ahal izango dena.
- Uarkapeko aldagelak berriztu, gela multifuntzionalak egokitu eta hutsik dauden espazioak biziberritu.
- Iturripeko kirol espazioa eraberritu, lehentasunak markatuz eta auzokideei gimnasio zerbitzua eskainiz.
- Kudeaketan erabiltzaileei erraztasunak eskainiko dizkiegu kirola herritar guztien eskura jartzeko: tasak ordaintzeko fiskalitate progresiboa aztertu, erreserbak egiteko modua aldatu...
- Konektatutako Arrasate: bizikletaren erabilera segura bermatzeko neurriak hartu: kirol instalakuntzak lotuko dituen sarea marraztu, gazteak zein nagusiak arriskurik gabe ibiltzeko bideak, eta bizikletentzako aparkaleku zein gordeleku munizipalak ahalbidetu.
- Mendi ibilbideak eta BTTa: mendi ibilbideak ezagutzera eman eta udal ordenantzan BTT bideak arautu eta sustatzea.
- Kirola adin guztietan eta norbere auzoan: nagusiei ere kirol zerbitzu egokiak eta pertsonalizatuak eskainiko dizkiegu, auzoan, kiroldegiraino mugitzeko beharrik izan gabe.
- Etorkizuneko kirol eredurantz: integratzailea, feminista eta euskalduna.

## **Monterron: heziketarako zerbitzu eta eraldaketa gunea**

Monterron jauregia bizirik eta herriari lotuta nahi dugu, gizarte kohesioa lantzeko urratsak bertatik abiatuta eman nahi ditugu, horretarako ezinbestekoa da egunerokoan herritarrek erabiliko duten espazio bilakatzea.

- Herriko familiak hurrekin elkartzeko txoko irekia, txikitxokoen proiektuari jarraipen serio eta duina emateko.
- 9-12 urte bitarteko haurrentzat aisialdi zerbitzua.
- Arrasatek Hezi proiektuaren erdigunea izatea, herriko hezkuntza arautu eta ez-arautuko eragileen, elkarten, familien eta udalaren arteko elkarlanetik Arrasaterako proiektu hezitzailea garatzeko. Honen baitan, besteak beste, eragile hezitzaileen arteko elkarlana bultzatu, Arrasateko jolasguneen mapa egitea beharrezko eraberritzeak bideratzeko, eta jada landuta dagoen "Arrasateko herri curriculum" ikastetxeei eta herriari zabalkundea ematea.
- Udal Eskola Kontseilua martxan jartzea (ikastetxeak, udala, tokiko elkarteak):
- Hezkuntza teknikariaren figura berreskuratzea.

## **Euskara**

Udaletik mugimendu euskaltzaleak behar duen arnasberritzearen eragile eta hizkuntza politika egokien sustatzaile izango gara.

- Euskararen plan integrala eta udal ordenantza garatu, udaleko barne erabilera zein kalera erabilerari begira eta euskara ikasteko doakotasuna bermatzeko.
- Euskara zehar lerro izateko lana egin eragile eta komunitate desberdinekin: Ikastetxeetan, gazte taldeekin, aisialdi taldeekin, kirola eta jarduera fisikoan, kulturean, etab. Erabilera espazio bihurtuz eta euskararen arnaguneak sortuz.
- Udalean lana euskaraz egiteko aukerak indartu eta bideratu, zerbitzu zein lan hizkuntzari dagokionez.
- Herritarrak gonbidatu eta lagundu Udalarekiko harremanean euskara lehenetsi dezan.
- Arrasaten euskararen eta euskalgintzaren historia ikertzeko bekak sustatu eta kale erabilera handitzeari begirako azterketa demografikoa eta fisikoa egin.
- Komunitate ezberdinekin ekintza planak (eskolaratzerakoan, euskalduntzerakoan, harrera egiterakoan, etab.)
- Arrasateko euskalkia, hika eta noka lantzeko ekimenak sustatu.

## ***Herri kulturgile eta sortzailea***

**Kultur eragileak eta sortzaileak Arrasateko bizitza kulturalaren protagonista izateko lan egingo dugu.**

- Kultur eragileen arteko elkarlana eta sorkuntza bideratzeko Kultuolarako dinamizazioa bideratzea.
- Kultur eskaintza zabala, anitza eta deszentralizatu garatzea (diziplinak, adinak, auzoak, espazioak).
- Kultur azpiegiturak antolatzea eta zaintzea: kultur azpiegitura desberdinen mapa egin, erabilerak zehaztu eta sarean lan egitea batetik, Amaia Antzokiak beharrezko dituen konponketa lan sakonak aztertu eta egitea, bestetik.
- Kultur agenda bateratua sortzea (Udala, auzoak, eragileak, elkarteak...)
- Sormen egonaldiak, kultur bekak eta kulturari eta arteari lotutako formazioak garatzea.

## ***Tokioa zainduz, kaleak bizirik***

**Arrasatearrak eroso, gustura eta zainduta sentitzeko, eragile zein herritarrak erdigunean jarri eta Arrasate bizirik mantentzeko ahalegina burura eramateko politikak egingo ditugu.**

- Tokiko merkataritza berraktibatzeke eta babesteko ekimenak: pizgarri ekonomiko eta fiskalak, aholkularitza, kontzientziazio programak...
- Lokalak berreskuratzeko proiektuak: alokairua erregulatu, erakusleihoak berreskuratu, lokal hutsak erabiltzeko aukerak aztertu...
- Ekintzailtza soziala sustatu: coworking-erako espazio baten sorrera eta erraztasunak/ aholkularitza bideratu.
- Azoka Plazaren birformulazioa eta eskuragarritasuna hobetzeko eta tokiko kontsumo arduratsua sustatzeko plana.
- Turismo mota desberdinentzat plan propioak garatu: natur eta ondare turismoa, lan munduko turismoa zein turismo jasangarria.
- Erresilientzia ekonomikorako plana egitea: Ehun ekonomiko eta enpresarialaren egoera aztertu, eta garai berrietara egokitzeko oinarriak eta egitasmoak diseinatuko ditugu: kontsumo eredu berriak, trantsizio energetiko eta ekologikoa, digitalizazioa edo eta belaunaldien arteko erreleboa.

## **Feminismoak**

**Berdintasunaren eremutik feminismoetara jauzi egiteko lan egingo dugu.**

- Emakume Txokoaren kokaleku berrirako eta eraldaketarako proiektua garatu: Tren geltoki zaharrean kokatu eta Txoko Feminista bilakatu LGBT+ kolektiboarekin batera (espazio propioak).
- Feminismoen saila sortu eta LGBT+ ildoak bertan txertatu.
- LGBT+ arloaren lanketa estrategikorako oinarria jarri: diagnostikoa egin, helburuak zehaztu eta ekintza plana diseinatu.
- Berdintasun kontseilu herritarra sortu.

## **Zaintzak erdigunera**

**Zaintzaren erronkari Udal politiketatik helduko diegu eta pertsona nagusiak ere herriko dinamika politiko eta sozialaren protagonista gisa kokatuko ditugu.**

- Nagusien kontseilua sortzea
- Cohousing proiektu publiko komunitarioa: gazteen emantzipatzeko ezintasuna, eta adineko pertsonen bakardadeari aurre egiteko.
- Zaintzaileak zaindu:
  - Ordaindutako zein ordaindugabeko zaintzaileak babesteko programa.
  - Zaintza lanen eta horien erantzukizunen banaketa erantzukidea sustatzeko: sentsibilizazio eta prestakuntza kanpaina.
  - Zaintza eta etxeko langileentzako eta kontratatzaileentzako aholkularitza eta bitartekaritza zerbitzu publikoa eta doakoa.
  - Zaintza lanak egiten dituzten enpresen klausulak berrikustea eta beste eredu batzuk sortzeko aukera aztertzea.
  - Arreta soziosanitarioko doako formakuntza etxeko langileentzat
- Zaintza sare komunitarioak osatzeko adin, kolektibo eta eragile desberdinen arteko espazio komunak lantzea.

## **Babes egitura sozial eta komunitarioak**

**Desberdintasunen areagotzeak gure komunitateak zeharkatzen dituen honetan, justizia sozialaren aldeko borroka eta kohesio soziala ehuntzea izango da gure erronketako bat.**

- Prebentzio eta esku-hartze komunitariorako elkarlan mahaia eta udal zerbitzua sortu.
- Bazterkeriari aurre egiteko programa sozialen aurrekontua handitzea.
- Udal Zergetan progresibitatea ezartzeko aukera aztertu.
- Ezberdinen arteko harreman komunitarioak sustatzeko ekimenak: auzozaintza, espazio intergenerazionalen sorrera (Monterron, auzoetxeak, Txoko Feminista...)
- Elkar ezagutzan eta aitortzan oinarritutako aniztasun politika garatzeko (bizikidetzeta eta aniztasun plana) baliabideak areagotu eta migrazio prozesuetatik iristen diren pertsonen dolu emozionalean laguntzeko zerbitzua eskaintzea.



## **Gazteria politikak**

**Gazteen ahotsa erabaki guneetara eraman eta bizi proiektuak Arrasaten garatzeko bermeak eraikitze lan egingo dugu.**

- Kontsumorik gabeko aisialdi aktiborako bitartekoak sortu: gazteak biltzeko aterpea eraiki, kirol herria garatu eta kultur eskaintza espezifikoa egin.
- Droga menpekotasun prebentziorako plan integrala diseinatu eta garatu.
- Etxebizitza-zerbitzu publikorako bulegoa, etxebizitza eskubidea bermatzeko eta etxebizitzara sarbidea errazteko (alokairu soziala, cohousing...).
- Mugikortasunean aurrera pausuak eman, eta eskualdeko gainerako udalerriekin batera Arrasateren konexioak eta autobus zerbitzua hobetzeko lan egin.
- Berdintasunaren eremutik feminismoetara jauzi egin eta LGBT+ ildo udal politiketan txertatu.
- Ikasteko eta lan egiteko ikasgela kolektiboak sortu, ordutegi zabalekin eta jai egunetan ere irekita egongo direnak
- Ekintzailatza soziala sustatzea negozio berriak ireki nahi dituztenen bidelagun izanez eta erraztasunak eskainiz.
- Kultur eskaintza zabala, anitza eta deszentralizatu garatzea eta gazte sortzaileentzako sormen beka abiatzea.

## **Politika klimatikoak**

**Erronka ekosoziala udalgintzaren agenda politikoaren lehen lerroa eramateko lan egingo dugu.**

- Trantsizio energetikorako laguntza bulegoa sortu eta koordinazioa sustatu Ekiola, Goiener eta energia komunitateen artean.
- D2030ekin batera Arrasateko energia kontsumoaren azterketa orokorra egin eta trantsizio ordenatu eta efikaza egiteko plana gauzatu. (Udal eraikinez gain, etxebizitza eta enpresak aztertzea)
- Errekaren arteria berreskuratu eta zaindu: ibilbidea sortu, kontzientziazio kanpaina egin, burdin sareak ezarri, isurketen jarraipena egin eta hirigintza planean errekaren berreskurapena aintzat hartu.
- Basoak bertako espezieekin birlandatzeko proiektua: baso-espazio publikoa handitu eta jabe pribatuak basogintza eredu jasangarrietara bultzatzeko esperientziak aztertzea
- Kurtzetxikiko azalera Iparralderantz handitzea, mendi honek eskaintzen dizkigun landaretza desberdinen erakusle izateko asmoz.
- Monterron, Etxezarreta, Santa Barbara, Udala... naturguneen sarea osatu (biodibertsitatea, eskaintza, zerbitzu minimoak (mahaiak, eserlekuak, iturria...) eta Vasco Navarro berreskuratu.
- Udalako ingurugiro eskola egungo beharretara egokitzeko eraldaketa proiektua egin.

## Hirigintza

Hirigintzaren bidez ere Arrasaterako nahi ditugun ezaugarriak garatzeko egingo dugu lan: herri hezitzailea, irisgarria, feminista, euskalduna eta jasangarria bermatzea.

- Kolektibo desberdinen beharrak aintzat hartuko dituen hirigintza politika eraldatzaile eta malguagoak ezartzea (emakumeak, haurrak, desgaitasuna duten pertsonak, gazteak, migratuak...)
- Laubide garatzen jarraitu: Iturbide egoitzaren kanpo aldeko espazio berria exekutatu eta Grupo San Juaneko birgaitzea lantzea.
- Biteri Plazako aterpea egokitzea.
- Hileta Zibilak egiteko leku estali eta duina egokitzea.

## Ondarea

Arrasateko Ondare Historikoa zaindu eta babesteko konpromisoa.

- Arrasateko ondare historikoaren inbentarioa egitea eta digitalizatzea.
- Portaloia eraberritzeko obrak egitea.
- Herriko ondare historiko eta kulturala haurren artean APP baten bidez zabaltzeko proiektua gauzatzea.
- Monterron jauregia herritarren zerbitzura egotea.
- Arrasateko historia jasoko duen museoa bultzatzea. Lezetxiki Neanderthal lurraldea, Gipuzkoako museo arkeologikoa Arrasaten jartzea bultzatuko dugu eta Industria museoa berreskuratzeko proiektua bultzatuko dugu.

**ehbildu**

ARRASATE

**ehbildu**

ARRASATE